

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO IRAKURKETA-PLANAREN ESTRATEGIA ETA IDEIAK



2011ko azaroa

ABIAPUNTUKO HIRU EGOERA

Testu honen bidez, irakurketa-planaren bilakaeran eragina duten aldagai nagusiak - eta, beraz, bistakoenak- aurkitu nahi ditugu. Horien eragina funtsezko elementutzat hartuko da plana diseinatzerakoan, eta planaren izaera eta helburuak zehaztuko ditu.

1. Elebitasuna

Kontuan hartu behar da EAEn bi hizkuntza ofizial daudela eta bi hizkuntza erabiltzen dituztela herritarrek, eta, bistakoa denez, horrek eragina izango du plana osatuko duten irakurketa sustatzeko proiektu guztien diseinuan. Hala eta guztiz ere, azpimarratu nahi dugu aldagai hori diseinu orokorrerako behin betiko azterketan sartu behar dela, prozesuan esku hartzeko ahalmena duten eragileengan ikuspegi eta jarrera jakin batzuk sorraraz ditzakeelako (aliantzak eta gatazkak eragin ditzake).

Beste alde batetik, planak benetako ezaugarri berezi bat izan dezake bi hizkuntzatan (edo gehiagotan) irakurketa sustatzeko plan gisa eratzten bada, edo, beste hitz batzuekin esanda, oro har irakurketa sustatzeko plana bada, edozein hizkuntzatan irakurtzen dela ere. Gaur egun arte, hizkuntza ofizial bat baino gehiago zuten lurraldeetan aplikatutako irakurketa-planak ez dira izan irakurketa bere horretan sustatzeko plan, hizkuntza jakin batean irakurtzea sustatzeko plan baizik, edo, batzuetan, irakurketaren bidez hizkuntza jakin baten erabilera sustatzeko plan.

2. Irakurketa-planen eredu bat gainditzea

Kultura Ministerioak 2001-2004 aldirako prestatutako irakurketa sustatzeko plana izan da eta da erreferentzia nagusia gerora autonomia-erkidegoetan gauzatu diren irakurketako politika publikoentzat, bai eta udalerrri edo Iberoamerikako herrialde batzuetan (*Ilimita* eredu hartuta) eta Portugalen (*Ler+*) gauzatutakoentzat ere. Bistakoa da hori eredu izan dela planeko jarduera-bloke berak erabili direlako, "irakurketa" kontzeptua modu berean ulertu delako, eta horri dagokionez xede berak ezarri direlako.

Hamar urte igaro diren honetan, eredu hori gainditu beharra dago honako arrazoi hauengatik:

- Egiaztatu da egun oraindik indarrean dagoen ereduak 2001-2004rako plana egin zen uneko (2000. urtea) baldintzen emaitzak errepikatu dituela behin eta berriz horretarako arrazoirik izan gabe. Honako aldagai hauek izan ziren plan horren abiapuntu:

1. Ministerioak ordurako egiten zituen jarduera-motak eta gehitutakoak (ez beti arrazoizko moduan).
2. Ministerioak zituen eskumenak, eta, are garbiago, benetako kudeaketa zuzen bat ez izatea gehienetan.
3. Estatuko Liburutegi Publikoen sarea modernizatzeko eta egokitzeko xedearen garrantzia.
4. Beste arlo batzuetako politiken ondorioz liburu-sektorearekin bizi ziren gatazkak nolabait baretzeko erantzun bat behar izatea.
5. Hezkuntza-sistemaren araudi orokorrean gauzatutako aldaketekin koherente ziren proiektuak gauzatzeko jarraibidea.
6. Gastuaren sailkapen ekonomikoaren arabera, eskuragarri zeuden aurrekontu-kredituen egitura (pisu handiegia inbertsioen atalean eta, neurri txikiagoan, korrante-transferentzienean).

- Irakurketaren beharrak nabarmen aldatu izatea, bai eta arlo horretan jarduteko egungo tresnak ere.

3. Iraultza digitala

Euskal Autonomia Erkidegoko Irakurketa Plana (aurrerantzean, EAEIP) landuko dugun garai honetan, irakurketaren egoera eraldatzeko lehenengo pausoak ari dira gertatzen. Eraldaketa hori irakurketak XV. mendetik hona bizi izan duen handiena da: ekosistema digitalean sartu dira liburuak. Muturreko eraldaketa horrek irakurketa-unibertsoko ia osagai guztiei eragingo die eta aldatuko ditu, irakurtzearen kontzeptutik hasi -dimentsio are zabalagoa eta estrategikoagoa hartzen du orain- eta irakurtzeko ekintzan parte hartzen dutenen eta horren protagonista direnen harremanetara arte: edukiak, transmisio-bideak, edukiak aurkezteko modua, edizioa eta merkaturatzea, irakurleen eta egileen arteko elkarrekintza edo irakurketa partekatzeak aukera berri eta apartak, orain mundu-mailakoak direnak.

EAEIPren nortasun-ikurra izango da, hain zuzen ere, gure ekintza egoera berri horretan sartzea, eta, horrexegatik, benetako berrikuntza izango da. Era berean, eredu bihurtuko da nazioko edo nazioarteko beste komunitate batzuentzat.

Bestalde, "DATOZEN GARAIAK" batzuek kontrakoa badiote ere, "IRAKURKETA-GARAIAK" direla baieztatuko dugu. Ezin dugu aurrerapeneko etorkizun bat diseinatu eta eraiki ez baditugu gure irakurketa-inbertsioak berritzen eta aberasten.

HIRU AUKERA

1. Plan eleaniztuna eta zerbait gehiago

Irakurketa sustatzeko ohiko planek, erkidego bakoitzeko hizkuntza-gaitasunak eta literatura-kultura bultzatzeko nahi nabari eta irmoagatik, irakurketa-ekintza mugatu dute nolabait, eta hori desegokia da gure ustez. Orientazio horren ondorioz -inola ere ez da arbuigarria, baina ez da horren arabera soilik jardun eta gainerakoa kanpoan utzi behar-, azkenean honako alderdi hauei ematen zaie lehentasuna:

1. Fikziozko literaturari.
2. Aisialdia betetzeko irakurtzeari.
3. Ondare artistiko-literarioaz gozatzeko irakurtzeari, lehentasunezko aukera eta ia bakar gisa, eta proposamenetik kanpo uztea baita ere beharrezko diren beste irakurketa-modalitate eta aukera batzuk.

Gure proposamenak muga horiek gainditu nahi ditu, eta irakurketaren adierazpen guztiak sustatu. Gainera, lortu nahi dugu irakurketa, funtsean, errealitatearekin edo bizitzarekin daukagun harremana definitzeko modu gisa erabiltzea maiz eta era naturalean, deskodetzeko tresna gisa soilik erabili beharrean.

Gure iritziz, irakurtzea deskodetzea baino askoz ere gehiago da: irakurtzea behatzea da, aztertzea, ulertzea, balioestea, barneratzea eta partekatzea. Irakurtzeak hitzekin eta testuarekin du lotura ezinbestean, baina baita gure zibilizazioko gainerako adierazpen artistiko eta giza adierazpen guztiekin ere.

Azken batean, irakurtzea bizitzeko modu bat da, jardueran -irakurketa ekintza pasibotzat jotzen duen ikuspegi topiko eta okerraren kontra-, parte-hartzean eta konpromisoan oinarritzen den kultura bat.

Irakurtze-ekintza, bestalde, trebatu nahi ditugun herritarren ereduaren oinarri da; herritar horiek gai izan behar dute, gure inguruko informazio-itsasoan arrakastaz nabigatzeko gai izateaz gainera, hori ulertzeko, erkatzeko eta aberasteko. Irizpide propioak, bihotza eta arrazoia dituzten irakurleen gizarte bat eratu nahi dugu, irakurle askez eta solidarioz eta ikuspegi positiboa eta bizitzarekiko konpromisoa duten irakurlez osatutakoa.

Gure iritziz, hori izango da gure plan berriaren oinarria.

Irakurketaren kontzeptu moderno eta eguneratu batean oinarrituko da plana.

Eraiki nahi dugun gizartearen oinarri bihurtuko dugu.

Planaren eragina zabalduko dugu aurreko planetako ohiko esparruetatik edo mugetatik harago, plan horiek sortu ziren uneko egoera oso desberdina zelako egun bizi dugunarekin eta etorkizunerako aurreikusten dugunarekin alderatuta.

Plan eleaniztuna izango da, multimodala, multimedia; egun bizi dugun ingurunea ere eleaniztuna, multimodala eta multimedia den eran.

2. Eredu bat gainditzea eta beste berri bat sortzea

Plana sortzen den uneari esker, baldintza berezi batzuez baliatu ahal izango da, eta, gainera, EAEren ekarpenari esker ere aparteko beste baldintza batzuk izango ditu. Horietako bi azpimarratuko ditugu aparteko garrantzia dutelako:

- Euskal Autonomia Erkidegoko irakurketa-indizeak Espainiako indize altuenen artean daude, eta Europar Batasuneko batez bestekoak baino altuagoak dira (2. eranskina).

- Euskal liburutegi-azpiegituraren garapen-maila ere nazioko batez bestekoa baino altuagoa da, testuinguru europarrarekin homologatzeko modukoa (1. eranskina).

Bitxia bada ere, bi faktore horiek beste lurralde batzuetan bizi duten ahultasun-egoera dela eta, horietan ezarritako irakurketa-planen xedea izan da gabezia horien eragina konpontzea, edo, gutxienez, murriztea.

Baina, Euskal Autonomia Erkidegoak ez duenez egoera hori bizi, beste xede batzuetan oinarritutako plan bat diseinatu eta landu dezakegu, gainera irakurketaren ekosisteman aldaketa sakonak gertatzen ari diren une honetan. Horrek ez du esan nahi aipatutako bi faktore horiek ahaztuko ditugunik, etengabe zaindu beharko dira eta.

3. Irakurketa-plana testuinguru digitalean

3.4.

Irakurketari dagokionez, informazioa digitalizatzea eta horrek dakarren guztia izan da gertakaririk garrantzitsuena inprenta agertu zenez geroztik hona. Atzera ezinezko gertaera horretatik aurrera, guztiak funtzionaltasun berri bat hartu du, beste semantika bat. Hona hemen aldatutako elementu batzuk:

- a. Irakurketa bera.
- b. Irakurleen prestakuntzako eta garapeneko prozesuak.
- c. Irakurketaren arloan bitarteko diren erakundeek eta langileek gauzatu beharreko lana.
- d. Irakurketa-objektuak.
- e. Transmisio-kanalak.
- f. Irakurketa-edukiak editatzeko, banatzeko eta merkaturatzeko prozesu industrialak.
- g. Argitalpen-enpresen ereduak.
- h. Irakurlearen jokabide berria, hurbileko historian lehen aldiz informazioa aurkezteko sistema bat edo beste hautatuko baitu. Eta, gero eta gehiago, sormen-ekintza bihurtuko da irakurketa.

Duela urte batzuk, irakurketaz pentsatzen genuenean, liburu bat etortzen zitzaigun gogora berehala, ia 500 urtez ezagutu dugun moduan.

Gaur egun, zeri esaten diogun "liburu" galde egin beharko genioke gure buruari. Eta honako ondorio honetara helduko ginateke: dagoeneko ezin dugu pentsatu irakurketa-objektu bakar batean, aukera ugari daudelako; batzuk presentzia fisikodunak, eta beste batzuk birtualak.

Jarraian, berriz zehaztu beharko ditugu objektuen bildumetan oinarritzen ziren irakurketa-kateko elementu guztiak -horiek jasotzeko tokiek eskakizun fisiko jakin batzuk bete behar zituzten-, eta etorkizun hurbilean faktore horiek zer ezaugarri izango dituzten zehazteko ahaleginak egin beharko ditugu.

Liburutegiak dira horren adibide garbiena zalantzarik gabe. Oso erabilgarria izango litzateke EAEIPk etorkizuneko liburutegi horiek zehazten laguntzea. Hezkuntzari

dagokionez, zorionez, erraztasun handiagoz uler dezakegu Hezkuntza Sailak sustatutako Eskola 2.0 programaren bidez egindako aurrerapenei esker.

Egoera berri honetan, oso garrantzitsua iruditzen zaigu ekintza guzti honi zer estrategiarekin aurre egingo diogun erabakitzea. Eta ongi pentsatu ostean, honako iradokizun hau egingo dugu segurtasun osoz: **plan guztiak irakurlea hartu behar du funtsezko ardatz gisa**. Hortaz, planak beste alderdi batzuk ere kontuan hartzeaz gainera, arreta handiena irakurlearengan jartzea proposatzen dugu. Irakurleen jarduerak eta jokabideak aztertu behar ditugu sakonki, haien beharrei erantzuteko irizpideak aurkitzen lagunduko baitigu horrek. Eta, beraz, eraginkorrak izateko xedez sortuko dira.

Aipatu ditugun irakurle horietako asko egun bizi dugun mundu digitaleko pertsonak dira; mundu horrek irakurketa-aukera ugari eskatzen eta eskaintzen ditu.

“Irakurketaren digitalizazioko” prozesuan bistaritzen ditugun lehenengo eraginak interesgarriak dira estrategia zehazteko:

- Alde batetik, erakunde espezializatuak lantzen ari diren esperientzietan ikusten da zenbait eduki-mota bateratzeko nahia dutela (testua eta musika gutxienez, eta, beste batzuetan, testua, ikus-entzunezkoak eta komunikazioa).
- Ezaugarri desberdinen artean aipa dezakegu orain arte ordenagailuetan soilik gauzatzen zela irakurketa digitala, baina, gaur egun, irakurketako gailu eramangarriek nabarmen zabaldu dute esparrua. Eramangarritasunari eta eduki-kopuru handi bat gordetzeko ahalmenari esker, liburutegi bat eraman dezakegu poltsikoan edonora.
-
- Espazio berri horiek hartu izanari esker, gerta daiteke jendeak bizitzako une gehiagotan irakurtzea zentzu zabalenean.
- Era berean, gailu berriek are gehiago ahuldu dute lanaren, aisialdiaren eta ikaskuntzaren arteko muga.
- Azkenik, lehen esan dugun eran, esan behar da zalantza ugari eta irizpide-edo informazio-falta dagoela mundu digitalak irakurketan izango duen eragina orokorrari dagokionez. Une aproposa da EAEIPk erronka hori bere gain har dezan; arlo horretan jakintza sortu eta lidergoa eskuratu behar du esperimentazioaren eta ikerketaren bidez.

Bost ohar horietan, testuinguru digital batean irakurketa-politika berritzaile bat sortzeko lau aukera ikusten ditugu:

1. Planak kontuan har dezake testua, irudia eta soinua bateratzeko joera, eta, estrategia zehazterakoan, irakurketak kultura interpretatzeko tresnatzat jo ditzake.
2. Irakurle bakoitzak liburutegi bat eraman badezake gainean euskarri digitalean, liburutegien papera berriz aztertzeke eredu ausart bati ekin diezaioke EAEIPk; euskarri digitalean zerbitzu emateko erreferentziazko mekanikak abiaraz ditzake, egun ez baitago horrelakorik.
3. Irakurtzeko espazio berriak hartu direnez, liburutegien, ikastetxeen eta museoen eta irakurleen arteko komunikazioa zabaltzeko aukerak sortzen dira.
4. Aisialdiaren, lanaren eta ikaskuntzaren mugak ahuldu denez, errazagoa izango da EAEIPren estrategia ulertaraztea, irakurketa aisialdiko jarduera gisa soilik ez ikusteari dagokionez.

LANERAKO ARDATZEN PROPOSAMENA

Gure arreta handiena eskatzen duten aldagaiei buruz egin dugun gogoetaren bidez, hobeki ulertuko da zergatik aukeratu ditugun EAEIPren lanerako ardatz nagusiak.

Lan-eskema bat eraikitzekorakoan, gomendagarria iruditzen zaigu pentsatzea zer faktore den garrantzitsuena irakurketa-plan batek arrakasta izan dezan. Plan honen orientazio-ikuspegiaren oinarriak ezartzeko eta hori laburbiltzeko, honako ardatz hauek ezarri ditugu irakurketak gizartean duen presentzia aktiboan benetako aldaketa edo aurrerapena eragiteko:

1. Ikasteko irakurtzea

Jakintza eskuratzeko oinarrizko tresna da irakurketa. Irakurketa-plan bat abiarazteko, kalitatezko irakurketaren presentzia hobetzea eta hedatzea xede duten proiektuak gauzatu behar dira, hori funtsezko oinarria baita irakaskuntza-sistamarako eta lanarekin edo helduen hezkuntzarekin lotutako prestakuntzarako.

2. Berritzeko irakurtzea

Egungo ekoizpen-ereduak industria teknologikoa du ardatz, eta horrekin lan egiteko, informazioa sortu, banatu eta ustiatu behar da. Balio erantsi handiena duten sektoreetako enpresek irakurmena eta idazmena oso garatuta duen giza kapitala eskatzen dute. Irakurketa-indize altuenak dituzten herrialdeetan daude ekonomia dinamikoenak eta aberastasun-maila altuenak sortzen dituztenak.

3. Alfabetatzea

Gizarte irakurle batek alfabetatzearen indize altuenak lortzeko ahaleginak egiten ditu. Mende honetan behar den alfabetatzea ez da mugatzen testu idatzi bat deskodetzeko gaitasunera, jarduera zorrotzagoa eta konplexuagoa da. Informazioa eskuratzeko eta partekatzeko aukerak globalizatu direnez, alfabetatzeak izaera irekia du gaur egun: alfabetatzea da informazioa aurkitzen jakitea, iturriak aukeratzea, horien ezaugarriak ezartzea, iturriak sailkatzea, ahal den hizkuntza-kopuru handiengan ulertzea horiek, espezializazio teknikoko maila guztietan zer garrantzi duten jakiteko gai izatea eta horiek modu arrazionalen erabiltzeko gai izatea. EAEIPk jauzi kualitatibo bat eragin behar luke informazioaren alfabetatzean,

irakurmenean edo erabiltzaileen prestakuntzan, hau da, euskal herritarren "literazitatea" bultzatu behar du.

4. Irakurtzea sortzea da

Proiektuen lehentasunak modu egokian ezartzeko, ongi ulertu behar dugu irakurtzea idaztea dela, irakurtzea eztabaidatzea dela, eta irakurtzea sortzea dela, gaur egun inoiz baino gehiago. Irakurle garaikideek, irakurle gazteenek bereziki, belaunaldi digitalekoek, ulertzen dute irakurketa bi norabidetako prozesua dela, jarduera aktiboa. Irakurleek testua, musika edo irudia xehatzen dute, eta berriz batu, jatorrizko egileak proposatutakoa ez den emaitza bat sortuz. Bitarteko digital berrietan sormena sustatzeko ekimenak bultzeko bloke bat eduki behar luke EAEIPk.

5. Irakurketa partekatzea

Social media direlakoan bidez bizkorrago eta modu demokratikoagoan sor daitezke irakurle-komunitateak. Sareek modu esponentzian biderkatzen dituzte irakurketa partekatzeko aukerak, eta, horrela, irakurketa-ekintzaren ikuspegi kolektiboa bultzatzen da banakako jarduera denaren ikuspegiaz harago. Gaur egun irakurketa partekatu egiten da (duela zenbait mende egiten zen eran), eta, ikerketen arabera, horrek irakurmena hobetzen du. *Elkarrizketak* eskaintzen dituen aukerak erabiltzea ere EAEIPren indarguneetako bat izan behar litzateke.

EAEko abiapuntua bereziki ona da, tertulia literarioen mugimendua eta antzeko ekimenak oso egoera onean baitaude. Mugimendu horrek sustatutako duen irakurketa dialogikoaren kontzeptua funtsezko oinarri izan daiteke planaren esparruan arlo horretan gauzatuko den jarduerari kapilaritatea eta sakontasuna emateko.

Hori horrela, planeko proiektuen egituratik EAEko tertulia dialogikoetara bideratu behar dira indarrak.

EAEIPn kontuan hartu behar da esparru sozialak garrantzi handia duela, hezkuntzari dagokionez bereziki (derrigorrezko hezkuntzaz eta hezkuntza formalaz harago). Ikaskuntza sozialarekin lotutako esperientziak sartu behar dira planean:

- a. Irakurtzea jolastea da: ildo horretatik, esperimendatzeko ahalmena areagotzen duten proiektuak sustatu beharko dira, arazoak ebazten ikasten baita esperimendatuz.
- b. Informazioaz jabetzea: gaitasun hori sendotzeko, testuko eta multimedia-elementuetako edukiak berriz interpretatzeko eta berrerabiltzeko gaitasuna lantzen duten tresnak erabili beharko dira

gazteenekin (4. ardatzarekin ere lotzen da, sormenari buruzkoarekin). Gaitasun hori sendotu egingo da Eskola 2.0 proiektuan sartzen bada.

- c. Modu kolektiboan pentsamendua eraikitzea: banatutako pentsamenduaren dinamikak lantzea, gaur egun tresna erabilgarriak baitaude horretarako.
- d. Narrazioak eta esperientziak eraikitzea sortze-lan bati jarriki, eta, gainera, zenbait bitartekoren bidez egiteko gai izatea.
- e. Irakurtzea testuarekin "transakzionatzea" da; gaur egun, horrek esan nahi du zenbait komunitateren baitan lan egiten ikasi behar dela, ikuspegi desberdinak hautemanetz eta errespetatuz, eta "bestearen" balioak eta arauak asimilatzea erabilgarria dela ulertu behar da.

6. Elkarrekin bizitzeko irakurtzea

Ikaskuntzaz eta informazioa eskuratzeko eta tratatzeko oinarriko gaitasunak erabiltzeaz harago joan behar du irakurketa-estrategiak, eta irakurtzeak herritarren bizikidetzan duen eragina berreskuratzeko ahaleginak egin behar ditu. Irakurketak transakzioa gauzatzeko gaitasuna ematen duela eta gainerako balioak, arauak eta jomugak zein diren jakiteko aukera ematen duela diogunez, irakurketa bizikidetzarako kanal izan daitekeela azpimarratu behar du komunikazio-estrategiak.

Arrakasta-faktore horiek zehazten dituzte EAEIPren xede nagusiak, errealitate sozial guztien egoera hobetzeko xede gisa. Plana antolatzeko aurretiazko jarraibideei dagokienez:

- Lana errentagarri bihurtzen duten esparruen gainean jartzen dute arreta.
- Bost faktore edo elementu horiez gainera, EAEIPk zer proiektu- eta egitura-mota aurkeztu behar lituzkeen pentsatzen lagundu digute.
- Prozeduraren inguruko erabakiak hartzen ere lagundu digute.

ARRETARAKO LEHENENGO ESPARRUAK

1. Langileak_

EAEIP ezartzeaz arduratuko diren eragile gisa lan egin behar dute irakurketaren esparruan lan egiten duten pertsonak, edo, oro har, lehen aipatutako ardatzetako edozeinekin lotuta daudenak. Esaterako, irakasleek, liburuzainek, kazetariak, egileak, gidoilariak, argitaratzaileak, liburu-saltzaileak...

2. Herritarrak mobilizatzea_

Euskal gizarteak ezagutuko eta partekatuko dituen ekimenez osatu behar litzateke EAEIP. Ongi pentsatu behar da plana nola diseinatu eta kudeatu, herritarrek planean parte hartzeagatik ordainetan zerbait irabazten dutela senti dezaten, eta haien gain har dezaten planaren bilakaeraren ardura. Ildo horretatik, komunikazio-plan bat antolatu behar da.

3. Jakintza sortzea_

Aldaketa handiak gertatzen ari diren garai honetan, uste dugu irakurketaren alorrean aurkikuntza berriak egiteko aukera duela EAEIPk benetan. Plan honek berritzailea izan behar du herri-administrazio batetik irakurketaren ekintza orokorra lantzeko moduan, proposamenak mahaigaineratzeko aske sentitu behar du, eta testuinguru digitaleko irakurketari buruzko datu berriak eta garrantzitsuak aurkeztuko dituzten ikerketak abiarazi behar ditu.

PLANAREN EGITURAKO ILDO NAGUSIAK

EAEIPren diseinuaren bidez sortuko dugun tresnak ez du izango irakurketaren egoera hobetzeko sortutako proiektuak alboratuz soilik agortzen den egitura bat. Esparru publikoko plangintza estrategikoko adibide gehienek programazioaren ikuspegi neoklasikoa dute, ziurrenik honako bi aldagai hauengatik: epe politikoengatik eta aurrekontu-epeen zorroztasunagatik. Hala eta guztiz ere, horrek ez du esan nahi arauen esparruan eskema *ireki* bat erabili ezin denik:

- Plana gauzatzean sortutako jarduera-ildo berriak sar daitezke; aplikatuko dugun estrategiak aukera eman behar du planak ideia berriak sortzeko, eta hasiera batean aurreikusi gabeko lurraldeetara hedatzeko.
- Kultura Sailetik edo Hezkuntza Sailetik kanpoko eragileak sar daitezke, Eusko Jaurlaritzaren baitan, bai eta administrazio-egituratik kanpokoak ere.

Beste alde batetik, lana sistematikoki proiektu pilotuen bidez gauzatzea gomendatzen dugu. Gobernu-taldeko ikuspegi politikotik ez balitz horretarako eragozpenik egongo, positiboa izango litzateke EAEIPko jarduera-ildo gehienetan proiektu pilotuak gauzatzea; izan ere, horrela, horiek doitu eta *ex ante* ebaluazioa egin ahalko litzateke, eta hori benetan beharrezkoa da horrelako gai konplexu batean, orain arte "aktibismoa" nagusitu baita kostu/mozkin sozialaren azterketaren gaineratik. Bestalde, proiektuak aurretiaz *pre test* moduan kudeatuz gero, administrazio-sistemako aurrekontu-murriztapenak eta mugak bateragarriago bihurtzen dira indarrean dagoen legealdia amaitu baino lehen hasierako emaitza batzuk behar dituzten programak ezartzerakoan. Hasierako emaitza horien arabera erabakiko da planak hurrengo aldietan jarraituko duen edo ez.

Gauzatuko diren proiektu pilotu gehienak Kultura Sailaren eta Hezkuntza Sailaren jarduera-esparrukoak izatea gomendatzen dugu.

Halaber, uste dugu hasieran garrantzi handiagoa eman behar zaiela aipatutako lehenengo hiru jarduera-esparruekin lotutako proiektuei: langileak, herritarrak mobilizatzea eta jakintza sortzea.

Planaren dokumentu teknikoarekin batera, dokumentu laburrago bat zabaltzea gomendatzen dugu, jendeari informazio orokorra helarazteko komunikazio-estrategiako ildoetara jarraiki.

Planaren diseinuan zehaztu behar da zer edukik osatzen duten egitura, baina, halere, hasierako ildo batzuk aurreratu daitezke:

- Irakurketa sustatzearekin lotutako Eusko Jaurlaritzako sail guztien (Kultura Saila, Hezkuntza Saila, Industria eta Berrikuntza Saila...) jarduerak bateratzea.
- Integrazio-printzipioaren kaltetan izan gabe, nukleo sendo bat eraiki behar da. Kultura Sailaren mendeko jarduerak osatuko dute plan hori, eta koherentzia emango diote planari. Planaren diseinuan eskakizun gisa adieraziko da nukleo horretako proiektuen esku utziko dela estrategiaren aurrerapenaren zati handi bat.
- Dokumentu honetan jasotako 5 lan-ildoetan hobekuntzak ekarriko dituzten jarduerak jaso behar ditu planak.
- Planaren egiturak proposamen estrategiko honekin lotuta egon behar du derrigorrean.
- Hortaz, sailen araberako proposamen batez (hezkuntzaren alorreko proiektuak, kulturaren alorreko proiektuak, etab.) edo langile-taldeen ædo zerbitzu publikoaren motaren araberako proposamen batez (liburutegiak, ikastetxeak, etab.) harago doan egitura-ikuspegi bat ezartzea gomendatzen dugu.

JARDUTEKO PROPOSAMENA

Dokumentu honen xedea da sailak egindako eskaerari erantzun ematea: hau da, ildo estrategiko nagusi batzuk ezartzea etorkizunean irakurketa sustatzeko plan bat gauzatzeko. Hala eta guztiz ere, dokumentua osatu duen lan-talde txikian eztabaidatu ondoren, pentsatu dugu erabilgarria izango zela jarduteko proposamen labur bat lantzea. Prozedura hau "barne-prozedura" da, hau da, ez du zehazten zer fase tekniko aplikatu beharko lirartekeen epe politikoetan eta administratiboetan sailaren jarraibideekin bat.

EAEIP honako fase hauetan ezartzea proposatzen dugu:

1. Euskal Autonomia Erkidegoko Irakurketa Plana lantzea eta onartzea. Hori komunikatzeko eta mobilizazio soziala sortzeko gomendioak lantzea era berean.
2. Komunikazio-plana idaztea eta onartzea.
3. Plana gauzatzeko lehenengo fasea; aurrerapen nabarmenak egin behar dira arretarako lehenengo hiru esparruetan (herritarrak mobilizatzea, jakintza sortzea eta irakurketaren esparruko profesionalekin lan egitea). Fase honetako proiektuak Kultura Sailaren eta Hezkuntza Sailaren eskumenekoak eta jarduera-esparrukoak izango dira.
4. *Pre test* gisa aukeratutako proiektu pilotuak ebaluatzea.
5. Plana berriz zehaztea eta doitzea proiektu pilotuen emaitzen arabera.
6. Plana orokorrean gauzatzea jasotzen dituen esparru guztietan. Plana gauzatzeko ondorengo fase hauetan, Kultura Siletik eta Hezkuntza Siletik kanpoko sailen eta erakundeen jarduerak sartuko dira jada.
7. Ebaluazio-prozesuak.

ONDORENGO FASEETARAKO SAIAKERA-AURRERAPENA

1. Plana gauzatzeko lehenengo fasean aurrerapen nabarmenak egin behar dira arretarako lehenengo hiru esparruetan: 2012ko abendura arte.
2. *Pre test* gisa aukeratutako proiektu pilotuak ebaluatzea: 2013ko martxora arte.
3. Plana berriz zehaztea eta doitzea proiektu pilotuen emaitzen arabera: 2012ko ekainera arte.

(1. eranskina) ERKATUTAKO LIBURUTEGI-INDIZEAK

2008ko erabiltzaileak eta erabilpenak	EAE	Araba	Gipuzkoa	Bizkaia	Espainia		
Populazioa 2009ko urtarrilaren 1ean	2.172.175	313.819	705.698	1.152.658	46.745.807		
Izena emanda dauden erabiltzaileak	704.947	102.064	272.528	330.355	12.243.622		
Izena emanda dagoen populazioaren ehunekoa	%32,5	%32,5	%38,6	%28,7	%26,2	Asturiasko Printzerria	%43,6
Bisitariak	5.640.847	784.367	2.334.487	2.521.993	96.377.695		
Bisitak/biztanle	2,60	2,50	3,31	2,19	2,06	Nafarroako Foru Erkidegoa	3,79
Maileguak guztira	3.068.791	421.154	1.322.763	1.271.904	57.481.329		
Liburu-maileguak	1.960.829	302.596	810.801	847.432	32.573.729		
HIE (Hezkuntzako Ikus Entzunezko) maileguak	1.054.992	118.558	511.962	424.472	23.162.091		
Liburu-maileguen ehunekoa	%63,9	%71,8	%61,3	%66,6	%56,7		
HIE maileguen ehunekoa	%34,4	%28,2	%38,7	%33,4	%40,3		
Maileguak/biztanle	1,41	1,34	1,87	1,10	1,23	Gaztela eta Leon	2,48
Liburu-maileguak/biztanle	0,90	0,96	1,15	0,74	0,70	Gaztela eta Leon	1,42
HIE maileguak/biztanle	0,49	0,38	0,73	0,37	0,50	Gaztela-Mantxa	1,05

* Populazioaren iturria: EIN estatistika, http://www.ine.es/inebmenu/mnu_cifraspop.htm

* Liburutegiei buruzko datuen iturria: KUM estatistika, <http://www.mcu.es/bibliotecas/MC/EBP/index.html>

* HIE: ikus-entzunezko dokumentuak, soinu-dokumentuak eta dokumentu elektronikoak batera.

* Maileguak guztira: liburuen, aldizkako argitalpenen, ikus-entzunezko dokumentuen, soinu-dokumentuen eta dokumentu elektronikoaren maileguen batura.